

GIL 73 Iraetako meandroa



Urolako meandroaren ikuspegia, Endoia auzotik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 15' 40" N

Long.: 2° 15' 20" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 560.437,44 m

Y: 4.790.099,41 m



Nola iritsi

Urola ibaiaren behe-arroan dago GILa, Iraetatik hurbil, Aizarnazabalgo herrigunearen (ekialdean) eta Arroako herrigunearen (mendebaldean) artean. Meandroaren ikuspegi on bat izateko, Endoia auzoko antenetara igo behar da Zestoatik.

Deskribapena

Iraetako meandrea Gipuzkoan dago. Urola ibaian eratzen da, hegoaldetik datorrela; Zes-toa herria igaro ondoren, norabide-aldaketa handi bat egiten du ekialderantz, Aizarnazabal aldera.

Urola ibaia Aizkorriren magalean sortzen da, eta Gipuzkoako lurraldearen zati handi bat igarotzen du, S-N noranzkoan gehienbat. Erliebe handi batzuk zeharkatzen dituenez, mendi artean sartutako haran bat eratzen du; horren ondoren, Iraeta pasatutakoan eta erresistentzia gutxiagoko litologiak nagusi diren eremu batera sartutakoan, ibaiak haran zabalago bat eratzen du, non uholde-lautada nolabait garatua baitago. Aurrerago, berriro ere hareharrizko beste mendi-bizkar bat aurkitzen du, zeina Irao muinoaren gailurretik (123 m) ekialderantz luzatzen baita, Ibañarrieta aldera, eta, aurrerago arku gisa biratzen baita Gañeta (178 m) eta Mugitza (175 m) muinoen gailurretarantz. Urola ibaiak norabidea aldatzen du, horma topografiko hori saihesteko. Eremu horretan aldapa txikiagoa denez eta material bigunak —lutitak eta margak— daudenez, erradio handiko hiru meandro eratu dira. Haien bidez, inguruko erliebeak saihestuz doa Urola, eta herri-gune nagusiak kokatzeko aprobeztatu dira. Meandro horietatik, nabarmentzekoa da Iraetakoa, trazaduragatik eta paisaia-balioarengatik.

Urola ibaiak han duen bezalako meandro-formako trazadura, eskuarki, ibilgu eta kanal bakarreko ibaiei dagokie, 1,5 baino bihurtasun-indize handiagokoei. Puntu horretan, ibaiak luzetarako aldapa leun bat du, eta karga eseki handia. Garraiatzeko eta higatzeko ahalmena dela eta, higadura- eta sedimentazio-efektuak dituen ibai gisa defini daiteke puntu horretan.


Meandroak bihurtune oso bat eratzen du kanalaren gainean. Kanalak ondoz ondoko bi arku ditu, non uren helize-formako fluxu bat sortzen baita, korrontea zeharka eta luzetara gainjartzearen eraginez. Horren ondorioz, higadura- eta sedimentazio-efektuak sortzen dira: higatu egiten du arku baten kanpoko aldea, karga hartzen du, eta hurrengo arkuaren barrualdean metatzen du materiala. Hala, malkarrak atzera egiten du, meandroaren kanpoaldean, ibaiak azpia jaten baitio; horren ondorioz, malkarrak sostengua galtzen du, eta materiala, grabitatearen eraginez, erori egiten da; ibaiak materiala garraiatzen du, eta ondoko arkuaren barrualdean metatzen du. Horren ondorioz, ilargi-erdi formako barrak (*point bars*) eratzen dira, eta gailur-ildo batzuk sortzen dira.

Behatzeko punturik onena

Endoia auzoko antenak dauden tokia.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 43, GIL 45, GIL 48, GIL 103, GIL 135.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 71, GIL 73, GIL 77.



Meandro baten helize-formako fluxuaren adibidea. Urak thalwegaren norabidean duen mugimenduari beste mugimendu bat gainjartzen zaio, zeina kanpoko ertzetik barruko ertzera baitoa kanalaren hondoan, eta alderantziz, berriz, gainazaletik hurbil dagoen eremuan. (Iturria: Pedraza, 1996).

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	EAE osoko behe-ibilguko meandroen adibide onenetako bat da. Gainera, beste adibide batzuekin konparatuta, meandro honek oso antropizazio txikia du.				

Bibliografia espezifikoa

- *Puntos de interés geológico de Gipuzkoa*. GFA. (1992).